

Prensa oharra

Nota de prensa

Udalak Zaintzak Gertu proiektuaren hirugarren edizioa jarriko du abian Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua hobetzeko

Proiektu horrek etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileen bizi-kalitatea eta kalitate emozionala hobetuko ditu, eta zainketen pertsonalizazioa eta erabakitze gaitasuna areagotuko ditu

Tokiko Gobernu Batzarrak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) kontratua aldatzea onartu du. Zerbitzu hori Aztertzen Laguntza Zerbitzuak enpresak kudeatzen du, eta, horri esker, Zaintzak Gertu III proiektuaren garapena bultzatu ahal izango da, etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzeko, zainketen pertsonalizazioa areagotzeko eta gizarte-, osasun- eta komunitate-zerbitzuen arteko koordinazio handiagoa lortzeko.

Jon Insausti alkateak nabarmendu duenez, "urrats garrantzitsuak ematen jarraitzen dugu donostiarren bizi-kalitatea hobetzeko, kasu honetan, beren etxeetan laguntza behar duten adineko edo mendekotasuna duten pertsonena".

Insaustik gaineratu duenez, zerbitzu hori "gizarte-zerbitzuei dagokienez gehien balioesten eta eskatzen denetako bat da, baina hobetzen jarraitu nahi dugu, erabiltzaileei begira ez ezik, zerbitzua ematen duten profesionaleri espezializazio hobea izateko eta beren lanari balioa emateko aukera ere eskainiz, haiek baitira pertsona ahulenei zainketa onenak eskaintzeko lan garrantzitsua egiten dutenak".

Zainketen eredu aitzindaria indartzea

Onartutako aldaketak Udalaren 175.707 euroko ekarpen ekonomikoa dakar, eta enpresa esleipendunak profil tekniko eta metodologiko espezializatuak dituen profesional-talde bat sartzeari ahalbidetuko du, Zaintzak Gertu III proiektuaren fase guztiak zuzendu, koordinatu, kudeatu eta ezartzeaz arduratuko dena.

Programa horren zati bat Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen du, eta nazioarteko eta lurraldeko estandarretan oinarritutako ELZren kalitate-eredu bat finkatzea du helburu, Zaintzak Gertu estrategiarekin bat datorrena. Baina, nagusiki, honako haiek lortzen ditu: zainketen pertsonalizazioa areagotzea, erabiltzaileen bizi-kalitatea eta ongizate emozionala hobetzea, erabiltzaileen autonomia eta erabakitze gaitasuna handitzea, gizarte-, osasun- eta komunitate-zerbitzuen arteko koordinazio handiagoa lortzea eta beharrezkoak ez diren instituzionalizazioak murriztea.

Adineko eta mendekotasuna duten pertsonetikiko konpromisoa

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua, zeinari Udalak 10 milioi euro bideratuko dizkion 2026an, funtsezko baliabidea da gizarte-arretako udal-sarean, autonomia, mendetasun-egoeran edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen etxean eta

Prensa oharra

Nota de prensa

komunitate-ingurunean ahalik eta denbora gehien bizitzen jarrai dezaten ahalbidetzeko.

Kalitatezko laguntzak eskaintzeko, isolamendu- edo nahi ez den bakardade-egoerak prebenitzeko eta autonomia pertsonala sustatzeko udalak hartutako konpromiso irmoari erantzuten dio zerbitzu hau zabaltzeak eta hobetzeak.

GOBERNU BATZARREAN ONARTUTAKO BESTE GAI BATZUK

Apostolutza

Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onartu du Martutene auzoko Apostolutza azpierzemua birpartzelatzeko proiektua. Proiektu horren helburua da Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean aurreikusitako hirigintza-antolamenduaren ondoriozko onurak eta kargak jabeen artean ekitatez banatzea.

Birpartzelazio horrek eremua berroneratzea ahalbidetuko du, 42 etxebizitza eraikitzea aurreikusten den hirigintza-garapenarekin (26 etxebizitza libre, 8 tasatu eta 8 alokairu sozialekoak).

2026ko LEP (1. fasea)

Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko Lan Eskaintza Publikoa (1. fasea) onartu du, Udaleko funtzionarioen plantillan dauden 42 plaza huts jasotzen dituen (horietatik 4 desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren modalitatean betetzeko):

- 39 txanda irekian izango dira, eta, beraz, langile berriak sartuz beteko dira.
- 3 barne-sustapenean, langileen karrera profesionala ahalbidetzeko.

Donostia, 2026ko otsailaren 24a